

Mendekotasun egoeran bizi diren Ermuko bizilagunei arreta integraleko zerbitzua emateko Plataforma

Orain dela bi urte sortu zen Plataforma hau. Bere lana, zaintzaileei lagundu eta informazioa eskaintzea da, besteak beste.

- Zein urtetan sortu zen taldea?

Ermuko Emakume Asanbladak 2006. urtean mendekotasun egoeran bizi diren pertsonen zaintzaren gaia lantzeko hasitako lanaren ondorioz sortu zen. Lehen bilerak 2008ko urtarrilean egin genuen.

- Zenbat kide zarete?

Momentu honetan 40 pertsona inguruk hartzen dugu parte plataforman, ia guztiak emakumeak.

- Zeintzuk dira zuen helburuak?

Plataformaren helburu nagusia mendekotasun egoeran dauden eta hauen zaintzaz arduratzen diren pertsonen egoera hobetzea da. Horretarako ezinbestekoa da zerbitzu publikoak hobetzea eta zaintza lana modu orekatuan gizon eta emakumeen artean banatzea, oraindik ere emakumeak baitira nagusiki lan horretaz arduratzen direnak. Eraikunde ezberdinak eta herritarrak zaintzaren gaiarekiko sentsibilizatzea bilatzen du Plataformak eta aldi berean zaintzaileen ahotsa bideratzeko tresna bat izan nahi du, beraien eskaerak eta ekarpenak bildu eta artikulatuz.

zaintzak kostua du

Pertsona guztiek daukagu zainduak izateko eskubidea; galdera honakoa da: Nork dauka zaintzeko derrigortasuna?"

LOBIANOn, azaroaren 4an, 15.30etik 18.30era

Emakumeok zaintzeagatik ordaintzen dugun prezioa

Mari Luz Esteban, Mediku antropologoa eta Euskal

- Zein maiztasunekin biltzen zarete?

Bileren maiztasuna urteko plangintzaren arabera definitzen da, baina urtean 8 bat bilerak egiten ditugu, bertan jarraitu beharreko lan illoak finkatu eta estrategiak diseinatzaren ditugularik.

- Zeintzuk jarduera egiten dituzue?

Antolatutako jarduerak eremu ezberdinak jorratzen dituzte. Alde batetik, informazioa eskaintzen dugu, horretarako dauden zerbitzu eta baliabideak ezagutarazteko gida bat landu genuen, Mendekotasun Legearen inguruan informatzeko hitzaldiak antolatu ditugu... Egindako lana plazaratzea gaiarekiko kontzientzia pizteko tresna baliagarria

da eta horretarako kanpaina bereziak egin ditugu. Halaber, guregana hurbiltzen diren zaintzaileen beharrak aztertu eta ahal dugun neurrian horiei irtenbidea emateko lana egiten dugu (tramiteak burutzeko laguntza eskainiz, dauzkaten kezka eta zalantzak argituz, dituzten aukera ezberdinak azalduz eta zerbitzu eta baliabideetara zuzenduz....).

- Zuekin harremanetan jartzeko?

Plataformak ez dauka bulegorik eta orain arte bilerak Emakumeen Etxean edo Lobianon egin izan ditugu. Gurekin harremanetan jartzeko bide errazena telefono honetara deitzea da: 661219434 (Marixe Noya).

OKINDEGIA GOZOTEGIA

san antonio



Izelaiaeta, 40 Tel. 17 00 63
Zubiaurre, 12 Tel. 17 38 40

AIZ

Garraioak, S.L.

636 95 83 39 (JULEN)



ZABAL



ERMUA

GARAGARDOTEGIA

CERVECERIA

ZYTik

OTARTEKO eta INPORTAZIOZKO GARAGARDOtan berezitasuna

943 17 39 78

